

IDEIA



IRAUN-en bitartez, hainbat produktu teknologiko **epe laburrean alokatzeko** aukera emango da. Honetarako, produktuak lortzeko lau bide izango dira:

- Partikularrei erositako bigarren eskuko produktuak.
- Partikularrek epe baterako utzitako bigarren eskuko produktuak.
- Saltokietan erositako produktu berriak.
- Saltoki enprekin akordioen bitartez lortutako produktuak, jabetza beraiena izaten jarraituz.

Alokairurako bide nagusiak bi izango dira: Internet bitartez edota denda fisiko batean, hots, produktuak izango ditugun lokalean. Web orrialde baten bitartez produktuak bezero posibleei helaraziko zaizkie eta ondoren, garraio enpresa baten bitartez gailuak eureganatu. Epe zehatz bat pasatakoan, bezeroek garraio enpresa horren bitartez bueltatuko dituzte tresnak, eta zuzenean lokalera eramateko aukera ere izango dute. Alokairua egiterakoan, bezeroek kontratu bat sinatu beharko dute, eta honekin batera fidantza bat ordaindu. Bertan, prezio, ezaugarri eta oinarritzko informazioa agertuko da.

Esan bezala, saltoki enpresa ezberdinekin harremanetan jarri ostean, enpresa ezberdinen interesa piztu da. Adibide gisa: saltoki hauen showroom-etan matxura bat (kolpe txikiak, orbanak, urratuak, paketatzean arazoak...) izan duten produktu teknologikoak, baina guztiz erabilgarriak direnak, IRAUN-i saltzeko prest egongo lirateke, prezio merkeagoan, edo bestela, IRAUN-en bitartez alokatzeko aukera emango da, IRAUN bitartekari bihurtuz.

Partikularrei, bigarren alokairu aukera bat eskainiko die IRAUN-ek, propioak diren teknologia gailuak alokairuan jarrita. Alokairuaren zati bat IRAUN-entzat izango da (%40) , eta beste zatia berriz (%60), produktuaren jabeak jasoko du, hau da, bitartekariak izango gara. Zergatik da interesgarria? Bada, adibide gisa: pertsona bat oporretan joango balitz eta hilabete batzuetarako gailu bat erabili gabe izango balu, IRAUN-i emanek gero alokatzen jarriko luke, eta honela jabeak ere irabazien zati bat jasoko du.

Beste aukera bat jendeak erabilitako gailuak IRAUN-i saltzearena da. Produktuak jabeek dituzte eta erabilera oso murriztua eman diegun produktuei bigarren erabilera bat emateko aukera emango du IRAUN-ek. Horrela, bigarren eskuko alokairuko merkatu bat sortuko da. Gainera, gaur egun teknologia gailuak oso azkar zaharkitzen direla ikusita, IRAUN-i salduta, partikularrek hurrengo inbertsio baterako dirua lortu ahal izango dute.

Produktuek matxurarik izanez gero, gailuen etxe ofizialetara bidaliko genituzke konponketak egitera. Gastu hauek ordaintzeko, bezeroek, hasieran fidantza bat jarri beharko dute, eta alokairua amaitzean, alokatutako produktuak erabilera txarrarengatik arazoren bat izango balu, fidantza horrekin konponketen gastuak ordainduko genituzke.

IRAUN-en proiektuaren helburu nagusia **kontsumismo teknologikoa murriztea** da, gaur egungo arazo handi bat dela uste baitugu. Gainera, zaharkitzapen teknologikoa dela eta, zabor ugari sortzen da, eta oso garrantzitsua da gehiegizko kontsumoa gelditzea. Gainera, erabilera partekatuaren filosofia geroz eta zabalduago dago munduan barrena, eta IRAUN proiektua mugimendu berri honen adibide izango litzateke. Honetaz gain, IRAUN-ek batez ere gazteei, ekintzaile berriei, enpresa hasiberriei... kostu handia duten gailuak izateko aukera ematen die, epe motzerako ez bada ere.